

1. BALIO-PROPOSAMENA

Bigarren eskuko betaurrekoak birziklatzea eta Senegalera bidaltzeak, herritarren bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetzen dugu; betaurrekoak izanda haien egunerokoa hobetuko da, bai ikasteko, irakurtzeko edo eguneroko gauzak egiteko. Bertako biztanleak betaurrekoak lortzeko aukera izango dute, beste hiri edo herrialde batzuetara betaurrekoen bila joan beharrik izan gabe; eta ezer ordaindu gabe, irtenbide eskuragarriagoa eskainiz. Betaurrekoak Warang-era (Dakar-tik 100km ra dagoen herri bat) bidaliko dira, bertan Euleuk elkarteak dagoelako. Euleuk elkartearekin harremanetan jarri gara, haiek arduratuko dira behar handiena duten pertsonen artean banantzeaz.

Jasangarritasunari eta inpaktu sozialari ematen diogun garrantzia da gure empresa nabarmentzen duena. Importa zaigu eskaintzen ditugun produktuak %100 bigarren eskukoak izatea; hau da, norbaitek jada erabili izana eta birziklatzea, kasu honetan Senegaldar batek erabili dezakeena. Betaurreko hauek egoera onean daude, bidali aurretik, banan banan begiratu ditugulako ea erabilgarriak zeuden ala ez. Eta, berriro erabiltzeko moduan ez zeudenak, guk konpondu ditugu, berriak bezala uzteko. Bestalde, eragin soziala oso garrantzitsua da guretzat; horregaitik, betaurrekoak eskura ez dituzten pertsonen ematen dizkiegu, kasu honetan Senegaleko biztanleei. Gainera, betaurreko hauek doainik emango ditugu Euleuk elkartearen laguntzarekin.

Betaurrekoek graduazio desberdinak izan daitezke, egokitzen ikusmen diferenteetara. Presbisia dutenentzakoak izan daitezke, ikusmena hurbil ikusteko zailtasunak dituzten pertsonentzakoak, ikusmen zahartzeagatik. Miopiako betaurrekoak ere bai hartzen ditugu, distatzia luzeetan ez duten ikusten pertsonentzako. Hipermetropiako betaurrekoak ere, hurbil ikusteko zailtasunak dituzteentzako. Eta horretaz gain, astigmatismorako betaurrekoak ere badaude, ikusmen distortsionatua eragiten dutenak. Betaurreko hauek graduazio diferentekoak izan daitezke. Betaurreko bakoitzak zehaztapen desberdinak izan arren, guztiak super importanteak dira bizitratzen kalitatea hobetzeko, eguneroko gauzak egiteko aukera ematen dutelako, irakurtzeko gidatzeko edo bizitaz gozatzeko, ikusmen argia eta zehatz batekin.